

BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA, ETA LANTEGIAK DINAMIZATZEKO ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROAK EMATEKO ZEREGINAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATISTA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAGAIK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. URTEKO GEHIENEN LIZITAZIO AURREKONTUA, ALEKO GEHIENEN LIZITAZIO PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOA BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUAREN ESLEIPENA**
- 18. KONTRATUA OSATZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUA GAUZATZEA**
- 21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**
- 23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA**

24.KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

25.ZIGORRAK

26.KONTRATUA LAGATZEA

27.AZPIKONTRATAZIOA

28.KONTRATUAREN ALDAKETAK

29.ERANTZUKIZUNA

30.KONTRATUA ETETEA

31.HARRERA

32.KONTRATUA DEUSEZTATZEA

33.ARAUBIDE JURIDIKOA

34.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

**II. ERANSKINA. LIZITATZAILEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK
JAKINARAZPENEN ONDORIOETARAKO**

III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEA

IV.D ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

**V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ESPARRUKO
BETEBEHARRAK BETETZEAREN AITORPEN ERANTZULEA**

BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA, ETA LANTEGIAK DINAMIZATZEKO ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROAK EMATEKO ZEREGINAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da honako zerbitzu hau egiteko enpresa bat hautatzea: (a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; (b) emanaldi zerrendetarako laguntza tekniko ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta; eta (c) irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek Casares-Tomasene kultur etxean ematea. Zerbitzu hori Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarentzat egingo da (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA), agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian jasotakoaren arabera.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistaren esku jarriko ditu Casares Irratiaren instalazioak (Donostiako Casares-Tomasene kultur etxean kokatutakoak), kontratuaren xede diren prestazioak gauzatu ditzan.

Kontratuaren xedek bereizitako jardura hauek biltzen ditu:

a) Casares-Tomasene kultur etxearen Irratia (aurrerantzean, Casares Irratia), eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea.

Kontratuaren xedek Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea biltzen du.

Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzeko, era berean, DONOSTIA KULTURAREkin batera funtzionamendu proiektu bat diseinatu eta abiaraztea hartuko du. Proiektua enpresa lizitatzailerik proposatuko dute euren proposamen teknikoan, agiri honen 13. klausulan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren esleipendun suertatzen den enpresak proposatutako funtzionamendu proiektua DONOSTIA KULTURAREkin ados jarrita garatu eta egokituko da kontratua gauzatzen den bitartean.

Horretarako, baldintza teknikoen agiriaren eranskin gisa doan dokumentuan, erreferentzia moduan eta lotespenik gabe, proiektuaren ildo nagusiak biltzen dira, eta enpresa esleipendunak dokumentu hori erabili ahal izango du bere proposamenak egiteko.

Horri dagokionez, adierazi behar da Irrati Lantegia irrati hedabidea ezagutzen dutenei, eta esatari gisa prestatzeko eta, oro har, komunikazio gaitasuna hobetzeko interesa dutenei zuzenduta dagoela. Irrati Lantegiak pertsona horiei aukera ematen die euren irrati programa egin eta emateko. Enpresa kontratista arduratuko da Irrati Lantegi horretan parte hartzen dutenak koordinatzeaz.

Horretarako, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio beharrezko kudeaketak egitea Lantegiaren eta horren kostuaren berri jendaurrean emateko; matrikulazio kudeaketak egitea eta matrikulatutako pertsonen prezioa kobratzea; eta Lantegian pertsonak matrikulatzearekin lotutako beste edozein izapide egitea.

b) Emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta.

Enpresa esleipenduna ardurako da, halaber, Casares Irratiaren tresneria teknikoa kontserbatu, mantendu eta maneiatzeaz; haren instalazioak eta ekipamenduak kontrolatzeko zereginak egiteaz; emanaldi zerrendak kudeatzeaz; eta emanaldiaren jarraipena ziurtatzeaz.

c) Irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea.

Kontratuaren xedea da, era berean, irratizko hedapenaren, komunikazioaren, ahotsaren eta soinuaren esparruan prestakuntza eskaintza bat diseinatu eta abiaraztea, oro har, Casares-Tomasene kultur etxearentzat, eta esparru horretan ikastaroak ematea.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuaren barruan dago bai dagokion ikasturte zehatzean eman beharreko ikastaroen diseinu orokorra eta egutegia lantzea, bai ikastaro horiei dagozkien programen diseinu zehatza egitea.

Hala eta guztiz ere, kontratuaren indarraldiaren lehen urtean ez da egingo eman beharreko ikastaroen diseinu orokorra eta egutegia lantzeko zerbitzua. Zerbitzu hori DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio. Lehen urte horretan, ordea, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatu beharko dira.

DONOSTIA KULTURAK, ikastaro bakoitza hasi aurretik, dagokion ikastaroan matrikulatutako pertsonen zerrenda emango dio enpresa kontratistari. Horretarako, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio beharrezko kudeaketak egitea ikastaroen eta horien kostuaren berri jendaurrean emateko; matrikulazio kudeaketak egitea eta matrikulatutako pertsonen prezioa kobratzea; eta ikastaroetan pertsonak matrikulatzearekin lotutako beste edozein izapide egitea.

DONOSTIA KULTURAK beretzat gordetzen du mintegiak, lantegiak eta bestelako ikastaroak antolatzeke ahalmena; horien edukia eta ezaugarriak direla eta (DONOSTIA KULTURAK bakarrik zehaztuko du espezialitatea), profesional edo artista jakin batek horiek eman behar dituela irizten badio. Ikastaro horiek egilearekin edota esleipendun suertatzen den enpresa berarekin edo beste batekin kontratatu ahal izango dira, dagokion prozeduraren bidez.

Ikastaroak eta lantegiak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan egiteko aukera aintzat hartu da; hau da, Victoria Eugenia Antzokia, SAREN eta San Telmo Museoa, SAREN instalazioetan.

Kontratuaren xedeak ez du barne hartuko: (i) Casares Irratiaren ekipamendu eta instalazioetan konponketak egitea, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar bada; (ii) kontratua gauzatzeko enpresa kontratistak erabiltzen duen material diskografikoa, magnetikoa, optikoa edo bibliografikoa eskuratzea, ez eta irradi materiala ere; ez eta (iii) ikastaroak emateko erabili beharreko materialak eskuratzea ere. DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio, enpresa kontratistak eskatuta edo hark erabakita, adierazitako zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea; betiere, beharrezkotzat jotzen badu eta bidezko prozedurak betetzen badira. Zerbitzu eta hornidura horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

Enpresa lizitatzailleek aurkezten dituzten eskaintzetan, jardueren hiru atal horiek jaso beharko dituzte.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testuategia (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. eranskineko 24. kategorian dago sartuta kontratuaren xedea; baina ez dago, haatik, arauetxe harmonizatuari lotuta, balio zenbatetsia badu ere.

2. ERAKUNDE KONTRATISTA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA).

Kontratazio organoa DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO zuzendari kudeatzailea da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, agiri honetan ezarritako balorazio irizpideen arabera.

4. ALDAGAIK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: klausula ekonomiko administratiboen agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako dokumentu guztiak sinatu beharko ditu, horiekin ados dagoela erakusteko, kontratuak formalizatzeko egintzan.

6. IRAUPENA

Kontratuaren iraupena berori formalizatu eta hurrengo egunetik hasi eta 2015eko uztailaren 31ra arte luzatuko da, eta, hurrenez hurren, urtebeteko bi luzapen izan ditzake, erakunde kontratatzailearen alde bakarreko borondatez.

Luzapenen jakinarazpenak kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egingo dira gutxienez, eta enpresa esleipendunarentzat nahitaezkoak izango dira.

Kontratuaren hasierako iraupenean, zerbitzua, betiere, bi ikasturtetan egingo da (2013-2014 eta 2014-2015, irailtik uztailera, biak barne).

Hala eta guztiz, 2013-2014 ikasturteari dagokion zerbitzua kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita egingo da.

Erakunde kontratugileak kontratua urtero luzatzea erabakiko balu, zerbitzua ikasturte hauetan egingo da, hurrenez hurren: 2015-2016 ikasturtean (irailtik uztailera, biak barne) eta 2016-2017 ikasturtean (irailtik uztailera, biak barne) -era berean,

kontratuaren enpresa esleipendunak eskaintako programarekiko adostasunez eta DONOSTIA KULTURAK baimenduta-.

7. URTEKO GEHIENEO LIZITAZIO AURREKONTUA, ALEKO GEHIENEO LIZITAZIO PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSA

7.1. Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan bildutako zerbitzuak -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-.

Enpresa lizitatzailleek, euren proposamen ekonomikoan, agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan bildutako zerbitzuak urteko zein preziotan egingo duten adierazi beharko dute. **Horretarako, urteko gehieneko lizitazio aurrekontua, BEZa kanpo, honako hau da: 55.000 €/urte.**

Enpresek jaitsi ahal izango dute adierazitako urteko gehieneko aurrekontua euren proposamen ekonomikoetan; eta ezin izango dute, inola ere, prezio altuagorik eskaini. Prezioa gainditzea lizitaziotik baztertzeke kausa izango da.

Enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioan, adierazitako zerbitzuak gauzatzeko beharrezko gastu guztiak barne hartu beharko dira, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik. Nolanahi ere, eskaintako urteko prezio horretan bilduta egongo dira bai enpresa esleipendunak, bai Irrati Lantegiko partaideek egindako irratsaioak gauzatzearekin lotutako kostuak.

Era berean, enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioaren barruan ulertzen dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, uniformeak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), bai eta zerga (BEZa kanpo), aseguru, lizentzia, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Halaber, enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioaren barruan sartuko dira zerbitzugintzan enpresa kontratistak lanak gauzatzeko erabiliko dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, tresneria, lanabes, informatika ekipo eta gailu guztiak.

Enpresa lizitatzailleek aparteko kontu sail batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharreko BEZa.

Alabaina, eskaintako urteko prezioan ez da sartuko Casares Irratiko ekipamendu eta instalazioen konponketen kostua, baldin eta, horietarako, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar bada; ez eta enpresa kontratistak kontratua gauzatzeko erabiltzen duen material diskografikoaren, magnetikoaren, optikoaren edo bibliografikoaren kostua, eta irrati materialarena ere. Agiri honen 1. klausulan ezarritakoaren arabera, DONOSTIA KULTURARI dagokio zerbitzu eta hornidura horiek kontratatzea, enpresa kontratistaren eskariz nahiz berak erabakita, baldin eta hark beharrezkotzat jotzen badu eta dagozkion prozedurak betetzen badira. Zerbitzu eta hornidura horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

7.2. Agiri honen 1. klausulako c) atalean bildutako zerbitzuak –hots: irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea–.

Enpresa lizitatzailerik, euren proposamen ekonomikoan, eskola ordu bakoitzaren prezioa adierazi beharko dute. Horretarako, **aleko gehieneko prezioa, BEZa kanpo, honako hau da: 35 €/ordu.**

Enpresek jaitsi ahal izango dute aleko gehieneko prezio hori euren proposamen ekonomikoetan; eta ezin izango dute, inola ere, prezio altuagorik eskaini. Prezioa gainditzea lizitaziotik baztertzeko kausa izango da.

Aleko prezioan sartzen da programak diseinatzeko zerbitzuaren prezioa.

Enpresa lizitatzailerik eskainitako aleko prezioan, zerbitzua gauzatzeko beharrezko gastu guztiak barne hartu beharko dira, agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik.

Era berean, enpresa lizitatzailerik eskainitako aleko prezioaren barruan ulertzen dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliaitutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, uniformeak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), bai eta zerga (BEZa kanpo), aseguru, lizentzia, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Halaber, enpresa lizitatzailerik eskainitako aleko prezioaren barruan sartuko dira zerbitzugintzan enpresa kontratistak lanak gauzatzeko erabiliko dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, tresneria, lanabes, informatika ekipa eta gailu guztiak.

Enpresa lizitatzailerik aparteko kontu sail batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharreko BEZa.

Alabaina, eskainitako aleko prezioak ez du hartzen ikastaroak emateko erabili beharreko materialaren kostua. Agiri honen 1. klausulan ezarritakoaren arabera, DONOSTIA KULTURARI dagokio ikastaroak emateko erabili beharreko material horren hornidura kontratatzea, enpresa kontratistaren eskariz, bidezko prozedurak betetzen badira. Hornidura horren kostua DONOSTIA KULTURARI fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

Enpresa esleipendunari jasanaraziko zaizkio kontratua lizitatu eta formalizatzeko deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen ondoriozko gastuak.

7.3. Kontratuaren balio zenbatetsia

SPKLTBaren 88. artikularen ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia 251.920 euro da.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBaren 88.5 a) artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da; hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hilabeteetarako

aurreikusitako kopuru aldaketan arabera egokituta, eta kontratuak iraun dezakeen denbora osoaren arabera zenbatuta, luzapenak barne direla.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Prezioa hileror ordainduko da, dagokion faktura DONOSTIA KULTURARI aurkeztu eta horrek onespena eman ondoren.

Abuztuarekin lotuta aurrerago adierazten den salbuespenaz, DONOSTIA KULTURARI egindako zerbitzuen ondorioz hileror ordaindu beharreko prezioa honako kontzeptu hauek batzearen emaitzazkoa izango da:

- Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak egiteagatik enpresa esleipendunak eskainitako urteko prezioa hamaika hilabete sariz zatitzearen emaitzazko zenbatekoa.

Nolanahi ere, kontratua formalizatu ondorengo hurrengo egunetik 2014ko uztailaren 31ra arteko aldirian, kontratuaren indarraldi eraginkorreko hilabetei dagokien zenbatekoa ordainduko da.

- Ikastaroen eskola ordu bakoitzerako enpresa esleipendunak eskainitako prezioa dagokion hilabetearen benetan egindako zerbitzuari aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa.

Enpresa kontratistak faktura luzatuko du hileror, kasuak kasu dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabetea lehen hamabost egun naturalen barruan. Fakturan, egindako zerbitzuen banakapena sartuko da, aurretiaz hori egin ez balitz.

Hala eta guztiz ere, kontratuaren xede diren zerbitzuak abuztuan egingo ez direnez, hil horretan ez dira ez fakturatuko, ez ordainduko.

DONOSTIA KULTURAK jasotako zerbitzuen prezioa ordainduko du, zerbitzuak egin diren hilabetea amaitu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan; betiere, aurretik adierazitako epean luzatu bada faktura eta DONOSTIA KULTURAK ontzat eman badu.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Enpresa esleipendunak eskainitako prezioak urtero berrikusiko dira –bai agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak egiteagatik eskainitako prezioa, bai ikastaroen eskola ordu bakoitzari dagokion prezioa–, kontratua formalizatu eta lehenengo urtea igaro eta gero eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen edo horren ordezkari indizearen aldaketaren % 85 aplikatuta.

Lehen berrikuspena egiteko, enpresa kontratistak eskainitako prezioak hartuko dira oinarri; eta, ondorengo urteetarako, aurreko berrikuspenaren emaitzazko prezioa.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzaile profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Profil horretara honako web orri honen bidez sartuko da: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren enpresa esleipenduna, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko, behartuta egongo da behin betiko berme bat ezartzera (bakarra eta bereizi gabea) erakunde kontratatzaileen alde. Berme hori kontratuaren zenbatetsitako balioaren % 1ekoa izango da (BEZA kanpo).

Berme hori, gauzatu ahal izateko, erakunde kontratugileak errekeritu beharko du.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuen aurkezten duen enpresa lizitatzailerak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea ezartzeko, Kontratazio Organoaren errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osatu daiteke bermea.

Eskudirutan egiten bada, Kutxako 2095 5381 19 1061519723 kontu korrontean sartuko da.

Abal moduan ezarriz gero, baldintza agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren araberakoa izango da.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman beharko du.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkikeen zigorrak edo kalte ordainak gauzatzen badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du -dagokion zenbatekoan-. Haiek gauzatu eta hamabost egun balioduneko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz horien prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost egun naturaleko epea utziko da bermea egokitze, enpresa kontratistari aldatzeko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURAREKIN kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, jarduteko gaitasuna duten eta kontratatzeko debekurik ez duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia liberako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izango dira, kontratuko prestazioak berez dagozkien estatutuei edo sorrerako arauari jarraituz, jardueraren helburu, xede edo esparrukoak direnean.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita daudeneko estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita daudeneko estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko portaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitako enpresaren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatuta ahal izango dute kasurako aldi baterako eratzten diren enpresaburuen elkarteak. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerik baldintzarik gabe onartzen dituela agiri hau, baldintza teknikoak agiri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta baldintza teknikoak agiri kontratatzailearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURArekin bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 / 20003, Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerik **HIRU GUTUN AZAL ITXI (A, B eta C)** aurkeztuko dituzte DONOSTIA KULTURArekin adierazitako bulegoetan, astelehenetik ostiralera, erregistro ordutegian, 09:00etatik 14:00etara (udan

9:00etatik 13:30era), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren lizitazio iragarkietan ezarritako epearen barruan. Gutun azal horietan, geroago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute, eta guztietan jarriko dute zein kontrataziotan lehian parte hartuko duten, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen abizenak eta izaera, telefono eta fax zenbakia, eta posta elektronikoaren helbidea. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan egin aurkezteko; betiere, ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Enpresa lizitatzailleek euren proposamena postaz bidaltzen baldin badute, igorpenaren ezarpen data egiaztatu beharko dute postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali izana adierazi beharko diote DONOSTIA KULTURARI egun bereko telex, fax edo presazko telegrama bidez (ondorengo zenbakira: 943481189). Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da, honako helbide honetan: donostiakultura@donostia.org. Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa ere.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu egin beharko da, gero espedienteari eransteke.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, eskaintza ez da onartuko.

Dena den, adierazitako egunaren ondorengo 10 egun naturalak igaro ondoren proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

A gutun azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Enpresa lizitatzailleek kontratatzeko gaitasunari buruzko gutun azal bat aurkeztu beharko dute. Horretan, jarraian adierazten diren dokumentuak bildu beharko ditu.

1. Enpresa lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna dutenaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo eratze egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren izaeraren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko kide diren estatueto enpresaburu ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien

erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar dute, edo zinpeko aitoren edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezartzekoak diren Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsuletxeko bulegoaren txostena aurkeztuko dute. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuaren jarduteko ahalmena frogatzeko nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Ordezkarik gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta dagokien ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da dagokion ahalordea, betiere Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan jasotakoaren arabera horrela eskatzen bada; edota, kasuak kasu, dagokion erregistroan inskribatuta egongo da, pertsona juridikoaren mota zein den.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzten dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte; esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkarik edo ahaldun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dira zenbateko handia duten kobrantza eta ordainketetarako.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBaren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen enpresa lizitatzaillearen aitoren erantzulea, **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitoren erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

3. Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako bide hautetako baten edo gehiagoren bitartez egiaztatuko da:

- Finantza erakundearen aitoren egokiak.

- Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak, dagokion pertsona juridikoaren mota zein den. Erregistro ofizialetan kontuak

aurkezteko betebeharrak ez duten enpresaburuek beste bide bat erabil dezakete egiaztatzeko; hots: behar bezala legezkatutako kontabilitate liburuak aurkeztea.

- Negozioen bolumen orokorrari buruzko aitortpena eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagokion jarduera eremuko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez ere enpresaburuaren jarduera hasieraren edo enpresaren sorkuntza dataren arabera eskura dauden azken hiru ekitaldiei dagokienez, negozio bolumen horren erreferentziak dauzkan neurrian.

Justifikatutako edozein arrazoi dela eta, enpresaburua adierazitako erreferentziak aurkezteko egoeran ez badago, baimena emango zaio bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko, kontratazio organoak egokitzen jotzen duen beste edozein dokumenturen bidez.

4. Atzerriko enpresek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziko dute, eta uko egingo diote, hala badagokio, enpresa lizitatzailerari legokiokkeen atzerriko foru jurisdikzionalari.

5. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

6. Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitortpen erantzulea, **V. eranskineko** ereduaren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailerak, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean aipatutako dokumentazioaren orde.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailerak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailerak proposamen teknikoari buruzko gutun azal bat aurkeztu beharko dute. Bertan, honako alderdiok jaso beharko dituzte:

- Casares Irratiaren eta horren Irrati Lantegiaren funtzionamenduari buruzko proiektu proposamena. Horretan, zehazki adieraziko da agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak nola gauzatu nahi diren -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza tekniko ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-. Besteak beste, honako alderdiok aipatu beharko dira:

- Helburuak
- Edukia
- Lantegia kudeatu eta dinamizatzeko planaren diseinua
- Programazioaren diseinua
- Hedapen eta jarduera planaren diseinua
- Metodologia, ebaluazio sistemak

Kontratuaren esleipendun suertatzen den enpresak proposatutako funtzionamendu proiektua DONOSTIA KULTURArekin ados jarrita garatu eta egokituko da kontratua gauzatzen den bitartean.

Horretarako, baldintza teknikoen agiriaren eranskin gisa doan dokumentuan, erreferentzia moduan eta lotespenik gabe, proiektuaren ildo nagusiak biltzen dira, eta enpresa esleipendunak dokumentu hori erabili ahal izango du bere proposamenak egiteko.

- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, bai eta ikasturte bati dagokion ikastaroen programa zehatzena ere.

Horretarako, kontuan izan beharko ditu baldintza teknikoen agiriaren eranskinean jasotako proiektuan adierazten diren irizpideak.

Era berean, ikastaroen programa zehatzetan, gutxienez, jarraian adierazten diren alderdiak bildu beharko dira:

- Helburuak
- Edukia
- Metodologia, ebaluazio sistemak
- Materiala (deskribapena eta kostuaren zenbatespena)
- Ikastaroaren kostua
- Ikastaro elebidunetan aplikatu beharreko irizpideak
- Saioen datak eta ordutegiak
- Interesgarriak suerta litezkeen bestelako datuak

Era berean, alderdi praktikoak eta teorikoak adierazi beharko dira, oinarritzko mailetatik hasi eta maila aurreratuera iritsi arte, eta hurrei eta gazteei zuzendutako berariazko eskaintza jaso ere. Ariketa hori, a priori, hipotetikoa izango da eta horren edukia ez da inola ere loteslea izango DONOSTIA KULTURArentzat.

- Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuekin lotuta –hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta–, zerbitzu horietarako zuzenduko den lan taldearen deskribapena, agiri teknikoen agiriko 3. klausularen 3.1 epigrafean adierazitakoaren arabera.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko garaian, enpresa lizitatzaileri jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatzeko.

Gutun azal honetan eskatutako dokumentu guztiak barne hartuko ez dituen eskaintzarik ez da baloratuko.

C gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Agiri honen **IV.D eranskin** gisa gaineratutako ereduaren arabera aurkeztu beharko dute euren proposamen ekonomikoa enpresa lizitatzailleek.

Proposamen ekonomikoa makinaz osatuta egon beharko du bere osotasunean, inolako eranskinik, zuzenketarik edo marratzerik gabe. Dokumentu horietan edozein aldaketa, hutsune edo akats egotea nahikoa izango da proposamena osorik atzera botatzeko.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo egoeretan faltsutasunik aurkitzen bada, horrek kontratua baliogabetzea ekar dezake, enpresa kontratistari berari egozteko moduko ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta horiek baztertu ez badute.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera antolatuta, honakoak dira:

1. Proposamen teknikoa:

Gehienez 70 puntu arte.

- Casares Irratiaren eta horren Irrati Lantegiaren funtzionamenduari buruzko proiektu proposamena. Horretan, zehazki adieraziko da agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak nola gauzatuko diren -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-.
- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, bai eta ikasturte bati dagokion ikastaroen programa zehatzena ere.
- Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuekin lotuta -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-, lizitatzailleak zerbitzu horietarako zuzenduko duen lan taldearen osaera eta kualifikazioa, baldintza teknikoaren agiriko 3. klausularen 3.1 epigrafean adierazitakoaren arabera.

2. Proposamen ekonomikoa:

Gehienez 30 puntu arte.

Proposamen ekonomikoi dagozkion puntuak honela banatuko dira:

- Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan bildutako zerbitzuak -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-.

Gehienez 24 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoi dagozkion puntuak honako formula honen bitartez emango dituzte:

$$P = 24 \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{N \text{ eskaintza}}$$

Non:

P = Baloratutako enpresa lizitatzailleak eskuratutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

N eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

- Agiri honen 1. klausulako c) atalean bildutako zerbitzuak -hots: irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea-. Gehienez 6 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak honako formula honen bitartez emango dituzte:

$$P = 24 \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{N \text{ eskaintza}}$$

Non:

P = Baloratutako enpresa lizitatzailleak eskuratutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

N eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURAKo Kontratazioaren ordezkari batek.
- DONOSTIA KULTURAKo Kultura Ekintzaren bi ordezkari.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatze gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailleak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Ondoren B gutun-azala irekiko da. Bertan gordetzen da proposamen teknikoa, eta beraren azterketa eta balorazioa egingo da.

C gutun azaleko proposamen ekonomikoa irakitzea jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako enpresa lizitatzaille guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago, gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzaileriei; betiere, horietako batek eskatzen badu.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitu ondoren, haiek aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batean sartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda Kontratazio Organoari igorriko dio, handienetik txikienera sailkatuak **-14. klausulan** ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta- eta ekonomikoki eskaintza abantailatsuena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamenaren txosten juridikoa egingo da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sorrarazten proposatutako enpresa lizitatzaileraren alde.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako enpresa lizitatzailerak aukeratzeko, Kontratazio Organoa etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoiitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adierazten den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen enpresa lizitatzailerari, eta lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen dokumentazioa.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio; edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen aitortpen erantzulea gaineratu beharko du.

- Kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagiria.
- Orri honen **11. klausulan** jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzearen ondorioz sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria.

- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, enpresa lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri, eskaintzen sailkapenaren arabera.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera eta, aldi berean, DONOSTIA KULTURAKO kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA OSATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean osatuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, lizitatzailerei eta enpresa esleipendunari esleipenaren jakinarazpena igorri ondoren 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Enpresa esleipendunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzaile profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratua formalizatzeko iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren pertsona arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA KULTURAREN barrukoa edo kanpokoa.

Enpresa kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Zehazki, ondorengo baldintzen arabera gauztuko da kontratua:

- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.

- Kontratua dagozkion baldintzen arabera gauzatuko da, baldintza ekonomiko administratiboen agiri honen, baldintza teknikoen agiriaren eta enpresa kontratistak aurkeztutako eskaintzaren arabera; DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideak betez.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, bai eta lanak kalitate maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

- Enpresa kontratistak zerga esparruko, lan esparruko, Gizarte Segurantzako eta Laneko Arriskuen Prebentzioko indarreko xedapen guztiak bete behar ditu, zerbitzua eskaintzeko enplegatzen dituen langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek arlo horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.

Enpresa kontratistaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela, eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak dira. Enpresa kontratistarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

- Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO) eta hura garatzeko araudian jasotakoaren ondoriozko betebeharrak; kontratuaren indarraldian, bere jardueren esparruan eta bere kabuz eta erabakiz gauzatzen duen edozein datu pertsonalaren tratamenduaren ondorioz, tratamendu horren

erantzule gisa. Horrez guztiaz gain, agiri honen **22. klausulan** berariaz ezarritakoa bete beharko du.

- Enpresa kontratistak, nolanahi ere, lanak ondo egiteko beharrezkoak diren tresneria edo bitarteko osagarriak jarri beharko ditu; eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Gainera, dituen langileekiko, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak izango dira funtsezko kontratu betebeharrak:

- Kontratua betetzea; horren klausuletan, aplikatzekoak diren agirietan eta DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistari emandako barne aginduetan ere ezarritakoari zorrotz lotuta.
- Kontratuari atxikitzea berori gauzatzeko hitzemandako bitartekoak.
- Kontratuaren arduradunak eta DONOSTIA KULTURAK emandako aginduei men egitea, eta kontratua harekin koordinatuta gauzatzea.
- Bere kontura, zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortzea. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko egin beharreko gastuak, bai eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean berori gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.
- Behin betiko bermea eratzea, agiri honen **11. klausulan** adierazitakoaren arabera.
- Lan esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, soldadak, etab.), eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasunekoak betetzea; DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik izango betebeharrak horiek urratzeagatik.
- Zerbitzuak betetzea, grebarik badago. Zerbitzuak bermatzen ez badira, DONOSTIA KULTURAK eskumena du zerbitzuak estaltzeko behar diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, bere fakturaziotik kenduko dira aipatutako kontratuei dagozkien zenbatekoak.

Grebak irauten duen bitartean, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.

- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten eginkizuna eta denbora edozein dela, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko ez dakar DONOSTIA KULTURArenganako inolako erantzukizunik, enpresa kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

- Langileak ordezkatzeari gaixotasun, opor, baimen, istripu eta abarreatatik izandako bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egitea ziurtatuta. Gehienez hirurogeita hamabi orduko epean beteko da hori.
- Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko DONOSTIA KULTURAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarriarik jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.
- Enpresak aplikatzekoa den araudia errespetatu beharko du; bereziki: Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa, eta Donostiako Udalaren 2008-2013 Berdintasunerako II. Plana. Halaber, jardura guztiak Euskararen Normalkuntzarako 10/82 Oinarriko Legearen esparruan garatuko dira, bai eta Donostiako Kulturaren Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren arabera ere.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrek kontratu betebehartzat hartuko dira SPKLTBaren 223 f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

22. DATUEN BABESA

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteak, horien edukia kontuan izanda, honako hau eskatuko du: (i) DONOSTIA KULTURAREN kontura datu pertsonalak tratatzea, enpresa kontratistaren aldetik; eta (ii) enpresa kontratistaren aldetik, DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko fitxategietan sartutako datu pertsonalak eskuratzea.

Testuinguru horretan, DBLOak xedatzen duenez, enpresa kontratistak, tratamenduaren arduradun den heinean, bere burua behartzen du DONOSTIA KULTURAREKIN sinatzera (erakunde hori tratamenduaren erantzuletzat hartuko da) datuak eskuratzeko dagokion kontratua, DBLOaren 12. artikuluan eta DBLOa garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 20. artikuluan zehaztutako edukiaz eta hedaduraz.

Datuak eskuratzeko kontratu hori aldean artean zerbitzugintzako kontratua sinatzen den aldi berean izenpetu beharko da, eta kontratu horri gaineratuko zaio beraren eranskin gisa.

Nolanahi ere, datuak eskuratzeko adierazitako kontratuan ezartzen dena ezartzen dela ere, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu dagozkion betebehar guztiak, kontratazio honen xede den zerbitzugintzaren ondorioz, DBLOan eta berori garatzeko araudian jasotakoaren arabera.

Zehazki, datu babesaren alorreko gainerako betebeharren kaltetan izan gabe (enpresa kontratistak horiek behar bezala bete beharko ditu), enpresa kontratistak hitzematzen du interesduna informatzeko betebeharra beteko duela (DBLOaren 5. artikuluan jasotakoaren arabera), bai eta interesdun bakoitzaren baimena lortuko duela ere haren datuak DONOSTIA KULTURAK trata ditzan (adibidez, interesdunekiko harremanetan erabili beharreko formulario eta dokumentuetako informazio klausulen bidez, interesdunei bidalitako posta elektronikoen oineko informazio oharren bidez, etab.).

23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Enpresa kontratista behartuta egongo da (baimendutako iturrietatik eta beraren kontura soilik) informatika materialaren (hardwarea eta softwarea) gaineko erabilera eta ustiapen lizentzia eta eskubide guztiak lortzera; bai eta, kontratazio hau arautzen duten agiri honetan eta dagokion baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera, kontratazioaren xede diren zerbitzuak behar bezala egiteko atxiki eta/edo ekarri behar duen beste edozein tresneria eta/edo bitarteko osagarriren gaineko erabilera eta ustiapen lizentzia eta eskubide guztiak lortzera ere.

Hala, enpresa kontratistaren erantzukizuna izango da elementu horien erabilera baketsua eta horien gaineko behar adinako eskubideen titulartasuna bermatzea, kontratazioaren xede den zerbitzugintzaren esparruan agiri honetan ezarritako moduan erabiltzeko eskubideena, hain zuzen; eta enpresa kontratista izango da, betiere, kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek aurkez ditzaketen jabetzea intelektualaren eta/edo industrialaren inguruko erreklamazio guztien erantzulea. Gainera, hitzematzen du DONOSTIA KULTURARI beharrezko kalte ordainak emango dizkiola, kontzeptu horien ondorioz etor daitezkeen erreklamazioetatik hari sor lekizkiokkeen kalte galera guztiengatik.

Era berean, SPKLTBaren 301.2 artikuluan xedatutakoarekiko modu gehigarrian, kontratazioaren xede den zerbitzugintzaren esparruan sortutako/ekarritako edukien gaineko jabetza intelektualeko eskubideak, eta, oro har, zerbitzu horiek gauzatzearen emaitzaren gainekoak honako aurreikuspen hauen arabera arautuko dira:

- Enpresa kontratistak eta horren langileek sortutako edukiak:

Apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilean ezarritakoaren arabera (horren bidez, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen da), enpresa kontratistari legezkiokkeen eskubide moralen kaltetan izan gabe (DONOSTIA KULTURAK horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu), enpresa kontratistak eta horren langileek sortutako eduki guztiak (kontratazio honen xede diren zerbitzuen esparruan, beren osotasunean edo haien edozein fasetan) DONOSTIA KULTURARENak bakarrik izango dira.

Aurreikuspen horretan sartuta daude kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteko enpresa kontratistak sortzen dituen eduki eta dokumentu guztiak, egun ezagutzen den edozein euskarritan); horiek idatzizkoak, ikus entzunezkoak, plastikoak nahiz direnak direla ere (adibidez, audio fitxategiak, dokumentu teknikoak, prestakuntzako eta/edo hedapeneko materiala, publizitate dokumentuak, etab.).

Ondorioz, DONOSTIA KULTURARENak eskusiban izango dira eskubide hauek: erabilera eskubidea, ustiapen eskubidea (erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, osorik edo zati bat jendaurrean ezagutzera emateko eskubidea eta itzultzeko, egokitze edo beste edozein aldaketa egiteko eskubidea), eta, oro har, enpresa kontratistak kontratazio honen xede den zerbitzugintzaren esparruan sortzen dituen adierazitako edukien gaineko jabetza intelektualaren ondare eskubide guztiak. Horrela izango da mundu osorako eta legez ezarritako gehieneko eperako, eta DONOSTIA KULTURAK askatasunez erabili ahal izango ditu, egokitatz jotzen dituen irizpideen arabera.

Nolanahi ere, enpresa kontratista behartuta egongo da eduki horien gaineko jabetza intelektualako edozein eskubideren titulartasuna bere izenean erregistra dadin eskatzeari uko egitera, Espainiako Erresumako jabetza intelektualaren erregistroan nahiz munduko antzeko beste edozein erakundetan.

Sortutako eduki horien titulartasuna eta erabilera baketsua ziurtatu beharko dizkio enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURARI, eta bere gain hartuko du kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek jabetza intelektualaren inguruan aurkez dezaketen edozein erreklamazio. Gainera, hala badagokio, DONOSTIA KULTURARI kontzeptu horiekin lotutako erreklamazioen ondorioz eragindako kalte galerak guztiak ordaindu beharko dizkio.

- Hirugarrenek sortutako edukiak:

Enpresa kontratistak bere burua behartzen du, haren legezko titularrengandik, bere kontura soilik eta DONOSTIA KULTURAREN alde lortzera hirugarrenek sortutako edukien gaineko behar adinako ustiapen eskubideak, kontratazio honen xede diren zerbitzuetan bildutako jardueretan haiek erabiltzeko, bai eta jarduera horietako edozeinetan parte hartuta hirugarrenek sortutako bestelako edukien gainekoak ere, DONOSTIA KULTURAK horiek erabili eta ustiatu ahal izan ditzan, agiri honetan jasotako moduan; hau da, funtsean, eduki horiek irratia bidez eta/edo Internet bidez hedatuta, edozein hirugarreni erabilera eta/edo ustiapen lizentziak emanda adierazitako edukien gainean, bidezkoztat jotzen duen eran.

Aurreikuspen horretan sartuta daude hirugarrenek egun ezagutzen den edozein euskarritan sortutako eduki eta dokumentu guztiak, kontratazio honen xede diren zerbitzuak egitera zuzendutako jardueretan erabiltzeko; bai eta hirugarrenek horietan parte hartzeko sortutako bestelako edukiak ere, idatzizko edukiak, ikus entzunezkoak, plastikoak nahiz direnak direla ere (adibidez, musika obrak eta/edo horien interpretazioak, edozein motatako audio fitxategiak, dokumentazio teknikoak, prestakuntzako eta/edo hedapeneko materialak, etab.).

Horretarako, aldeek arautuko dute eskubide horiek lortzeko era zehatza eta euren artean sinatzen duten zerbitzugintzako kontratuan izango duten hedadura.

- Web orria:

Kontratazio honen xedean sartzen den web orriaren garapenari eta mantentzeari dagokionean, eta apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilean ezarritakoaren arabera (horren bidez, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen da), enpresa kontratistari legozkiokkeen eskubide moralen kaltetan izan gabe (DONOSTIA KULTURAK horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu), zerbitzu horien emaitzaren gaineko jabetza (beren osotasunean edo haien edozein fasetan) DONOSTIA KULTURARENak bakarrik izango dira.

Ondorioz, DONOSTIA KULTURARENak izango dira eskubide hauek: erabilera eskubidea, ustiapen eskubidea (erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, osorik edo zati bat jendaurrean ezagutzera emateko eskubidea, eta itzultzeko, egokitzeko edo beste edozein aldaketa egiteko eskubidea), eta, oro har, adierazitako web orria garatu eta mantentzearen, horren diseinu grafikoaren (barne harturik erabiltzen diren kontakizunak eta "Look & Feel" diseinua, horren pantaila guztietan) eta iturburu kodearen emaitzen gaineko jabetza intelektualaren ondare eskubide guztiak. Horrela izango da mundu osorako eta lege ezarritako

gehieneko eperako, eta DONOSTIA KULTURAK askatasunez erabili ahal izango ditu, egokitzen jotzen dituen irizpideen arabera.

Ildo horretatik, enpresa kontratistak bere burua behartzen du DONOSTIA KULTURARI eta horrek berariaz izendatutako pertsonari ematera (kontratazio honen xede diren lanak gauzatzean eskatzen zaion edozein unetan eta, betiere, zerbitzugintza amaitzean) datu, kalkulu, dokumentazio tekniko, erabilera eskuliburu, prozesu eta prozedura guztiak, kontratatutako zerbitzuen analisian, diseinuan, garapenean, ezarpenean eta/edo probetan sortutakoak, bai eta zerbitzu horiek egitearen emaitzaren iturburu kodea ere, irekian.

Web orria garatu eta mantentzeko lanen, haren diseinu grafikoaren eta iturburu kodearen titulartasuna eta erabilera baketsua ziurtatu beharko dizkio Enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURARI, eta, hala badagokio, bere burua behartuko du lege eta baimendutako iturrietatik lortu beharreko lizentziak eta eskubideak lortzera, zerbitzu horiek egitean erabilitako edozein elementuren eta/edo zerbitzugintzaren emaitzan sartutako edozein elementuren gainean.

Ondorioz, enpresa kontratista da, jabetza intelektualarekin lotuta, kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek aurkez dezaketen erreklamazio ororen erantzule. Gainera, DONOSTIA KULTURARI beharrezko kalte ordainak eman beharko dizkio, kontzeptu horien ondorioz etor daitezkeen erreklamazioetatik hari sor lekitzkiekeen kalte galera guztiengatik.

Azkenik, aurretik esandakoaren gehigarri moduan eta kontratazio honen xede diren zerbitzuetako batzuk zein motatakoak diren kontuan izanda (irriti kudeaketa eta hedapena, eta laguntza teknikoa), enpresa kontratista behartuta egongo da behar bezala betetzera dituen betebeharrak guztiak, jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera, egileen, editoreen eta/edo jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen aurrean, barne harturik horiei egin beharreko ordainketak (DONOSTIA KULTURAREN kontura), kontratazioaren xede diren zerbitzuetan jasotako irriti jardueraren ondorioz.

24. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzaileri eman beharreko informazioari dagokionez agiri honetan xedatzen denaren kaltetan izan gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du hedatu enpresa lizitatzailerek emandako informazioa berori konfidentzialtzat izendatu badute; batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa kontratistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita agiritan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasuna betirako gorde behar da.

Gainera, DBLOan jasotakoaren arabera, DONOSTIA KULTURAREN aldetik datu pertsonalen tratamenduan parte hartu izanak behartu egiten ditu enpresa kontratista eta horren langileak datuekin lotutako sekretu profesionalari eustera eta horiek gordetzera.

25. ZIGORRAK

Enpresa kontratistak, berari egoztekoak zaizkion arrazoiak direla eta, berak proposatutako programan adierazitako ikastaro bakoitza emateko datetan atzeratuz gero, DONOSTIA KULTURAK, aukeran, kontratua deuseztatu ahal izango du, **32. klausulan** jasotako baldintzetan, edota hura gauzatzen jarraitu ahal izango du, eguneroko zigorrak sortuta (0,20 euro, kontratuaren balio zenbatetsiaren 1.000 euroko).

Gauzatze akastunaren kasuan edota kontratuaren edozein baldintza beteko ez balitz, kontratuaren balio zenbatetsiaren 1.000 euroko 0,20 euro sortuko da, bidezkoak liratekeen beste edozein kalte ordain eta galeraz gainera.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada ere, ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan deusezta dezake kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorrak gauzatzeko, kenkariak egingo dira enpresa kontratistari ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da.

Edozein modutan, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzea erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiaz baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, lagapen hartzaileak lege betebeharrak eta baldintza agiri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatze debekurik izango. Horrela egingo du lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren prestazioak azpikontratatu ahal izango dira, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, enpresak lege betebeharrak eta baldintza agiri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatze debekurik izango. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzuari/zerbitzuei dagokionez/dagokienez.

Enpresa azpikontratatistak enpresa esleipendunaren aurrean soilik hartzen du konpromisoa. Hortaz, enpresa esleipendunak erantzungo du DONOSTIA KULTURAREN aurrean egiten duen zerbitzuagatik; betiere, klausula ekonomiko administratiboen agirian, baldintza teknikoan agirian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari zorrotz lotuta.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. ERANTZUKIZUNA

Enpresa kontratistak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikieriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Enpresa kontratistaren ardura izango da hirugarrenei eragindako kalte eta galeren kalte ordainak ordaintzea, edo langileek kontratua gauzatzean jasandako kalte eta galeren kalte ordainak ordaintzea.

DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa kontratistaren ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen egiteen edo ez egiteen ondorioz hirugarrenen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

30. KONTRATUA ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratua etetea adosten badu, edo hura SPKLTBaren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik eteten bada (kasu horretan berariaz aplikatu beharrekotzat hartzen da), dagokion akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK kontratistari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

31. HARRERA

Kontratua guztiz beteko du enpresa kontratistak zerbitzugintza osorik gauzatu duenean; betiere, kontratuan adierazitako baldintzetan eta DONOSTIA KULTURAREN adostasunarekin.

DONOSTIA KULTURAK erabakiko du enpresa kontratatzaileak egindako zerbitzugintza kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datorren eta, hala badagokio, kontratatutako zerbitzuak gauzatzeko eta horiek jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, DONOSTIA KULTURAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **25. klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte eta galeren kalte ordainak ere, kontratuaren xede diren prestazioak egitean atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

32. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua deuseztatzeko arrazoiak dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) letran -85. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe-, eta b), d), f), g) eta h) letretan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua deuseztatzeko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da deuseztatzea; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistari jakinarazpena bidaltzea.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua deuseztatzean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua deuseztatzean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURA hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratua deuseztatzen bada, enpresa kontratistak egin dituen lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea du.

Enpresa kontratatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik deuseztatzen bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kopurua zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan kasu ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua ondoko hauek arautuko dute: klausula ekonomiko administratiboen agiri honek, baldintza teknikoaren agiriak eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, kontrataziorako barne jarraibideek, SPKLTBaren horri buruz ezarritako arauak, eta, hala badagokio, 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati batean garatzeko denak (aurrerantzean, 817/2009 ED) adierazitako arauak -aipatutako SPKLTBaren II. eranskineko 17.etik 27.era bitarteko kategorietan sartutako zerbitzu kontratuetarako-; betiere, arau horietan HAKLAOak jasotakoaren aurka ez badaude.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: klausula ekonomiko administratiboen agiri honek eta baldintza teknikoaren agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBaren I. liburuko V. tituluan kontratuak aldatzeko ezarritako arauak kontratuari aplikatuko zaizkio.

Horrez gain, SPKLTBa, 817/2009 EDa eta HAKLAOa aplikatuko dira agiri honetan aipatutako testu arauemaileetara berariaz jotzen den bakoitzean.

34. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenak izango du, kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez, bi aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Hala badagokio, kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztuko da, SPKLTBaren 40. eta hurrengo artikuluetan jasotakoaren arabera.

Adierazitako errekurtsu berezia Donostiako Udalarekiko errekurtsua ebazteko eskumena duen organoaren aurrean aurkeztuko da, DONOSTIA KULTURAREN kontrataziorako barne jarraibideetan eta SPKLTBaren 41. artikuluko 4. eta 5. ataletan jasotakoaren arabera.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du, kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez, bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Donostia, 2013ko abuztuaren 5a

Amaia Almirall López de Luzuriaga andrea

Zuzendari kudeatzailea

IFK-CIF
220005411
6634n VI
2009-11